

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Aldaketa: Ekindar Azpeitiko energia-komunitatean parte hartuz, energia berriztagarriak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak eta 2022ko deialdia. BDNS (Identif.): 622316.

Alkateak 2022ko apirilaren 21ean emandako ebazpen bidez Ekindar Azpeitiko energia-komunitatean parte-hartuz, energia berriztagarriak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak eta 2022 deialdia onartu ziren.

Organu berak 2022ko ekainaren 27an emandako ebazpen bidez dirulaguntza horien oinarrietako 4. artikuluko gastu hautagarriaren epealdia luzatzea, deialdiko 2. artikuluko eskaerak egiteko epealdia luzatzea eta diru partidako zenbatekoa handitzea erabaki du.

Oinarrietako 2.artikulua honela geratzen da:

Dirulaguntza lerro honen zenbatekoa 350.000 eurokoa da, eta «Ekindar bazkideztza laguntzak» izeneko diru partidaren kontrataz geroztik da: 1.0202.480.170.00.01 2022.

Oinarrietako 4. artikulua honela geratzen da:

Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetarako diruz lagun daitezkeen gastuak lotuta egon beharko dute, zalantzarik gabe, dirulaguntzaren xede den jarduerarekin, hau da, energia-komunitatean parte-hartzearekin.

Helburu hori betetzen duten gastuak epealdi honetakoak izan beharko dute: 2022ko martxoaren 21etik 2022ko azaroaren 30a artekoak.

Bestetik, dirulaguntza honen itzulketa ez gauzatzeko beharrezkoa izango da kooperatiban 5 urtez egotea bazkide.

Deialdiko 2. artikulua honela geratzen da:

2022ko ekitaldiari dagozkion dirulaguntzetarako eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta azaroaren 30ean amaituko da.

Azpeitia, 2022ko ekainaren 27a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (4391)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Modificación: Bases y convocatoria 2022 de subvenciones para el fomento de las energías renovables participando en la comunidad energética Ekindar de Azpeitia. BDNS (Identif.): 622316.

Mediante Resolución de Alcaldía de 21 de abril de 2022 se aprobaron las bases y la convocatoria 2022 de subvenciones para el fomento de las energías renovables mediante la participación en la comunidad energética de Ekindar Azpeitia.

El mismo órgano, mediante resolución de 27 de junio de 2022, ha acordado prorrogar el período de gasto elegible del artículo 4 de las bases de dichas subvenciones, ampliar el plazo de presentación de solicitudes del artículo 2 de la convocatoria e incrementar el importe de la partida económica.

El artículo 2 de las bases queda redactado en los siguientes términos:

El importe de esta línea subvencional es de 350.000 euros y se financiará con cargo a la partida 1.0202.480.170.00.01 2022 Ayudas a socios Ekindar.

El artículo 4 de las bases queda redactado en los siguientes términos:

A los efectos previstos en estas bases, los gastos subvencionables deberán estar vinculados, sin duda, a la actividad objeto de subvención, esto es, a la participación en la comunidad energética.

Los gastos que cumplan esta finalidad deberán corresponder al período comprendido entre el 21 de marzo de 2022 y el 30 de noviembre de 2022.

Por otro lado, para que no se materialice la devolución de esta subvención será necesario que permanezca 5 años como socio en la cooperativa.

El artículo 2 de la convocatoria queda redactado como sigue:

El plazo de presentación de solicitudes para las subvenciones correspondientes al ejercicio 2022 comenzará el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el 30 de noviembre.

Azpeitia, a 27 de junio de 2022.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (4391)